

KOSTUEN EGITURA:



Kostu-egitura konpainia baten gastuak antolatzeko modua da. Egitura honek enpresa batek funtzionatzeko dituen kostu guztiak barne hartzen ditu: soldatak, alokairua, lehengaiak, zerbitzuak, zergen ordainketa, besteak beste.

Kostu-finkoa:

Produzitutako produktu edo zerbitzu kopuruaren arabera aldatzen ez diren kostuei honela esaten zaie. Gure enpresaren kostu finkoak hurrengoak dira; gure ofizinarekin alokairua, interneteko sarbidea, Telefonoaren gastuak, gure soldatak, gurekin lan egiten duten enpresen ordainketa eta enpresaren aseguruak.

Kostu-aldakorra:

Kostu aldakorra ekonomian, produktu edo zerbitzu bat gehiago ekoizteak ekartzen duen kostua da. Esan nahi du, azken unitatea ekoizteko gehitutako kostua. Adibidez, fakturazioak edo langileen ordu gehiago beharko dituzten ekoizpen gehigarriak sortzen duten kostuak.

Kostu nagusia, garraioa da. Gure produktua biltegietara eramateko garraio-enpresa baten bidez egiten dugu, orduan; distantzia eta eskariaren arabera, kostua aldakorra izango da.

Eskala- ekonomikoa:

Produkzioaren hazkundearen ondorengo produkzio-kostuen murrizketa da. Enpresa baten produktibitatea hobetzeko aukera ematen du. Hornitzaileari unitate bakoitzaren kostua jaisten badugu, kantitate handi bat eskatu dugulako, gure bezeroei produktua merkeagoa saltzeko aukera izango genuke. Baita ere irabaziak handiagoak izango ziren, prezioa mantentzen badugu. Produktuak egiten dizkigun enpresak ikusten badu asko eskatzen diegula, deskontua egingo digute.

Hedapen-ekonomikoa:

Momentuan gure enpresan ez ditugu hedapen-ekonomikorako planik. Baina negozioa ondo funtzionatzen badu, denbora pasata, beste motatako produktuak egiteari ez diogu uko egiten. Ez ditugu ideiak, etorkizunean egin ahalko dugun produktu hauetarako. Orokorrean, gure helburua kalitatezko produktu bat eskeintzea da, baina prezioaren regulazioari garrantzi handia ematen diogu.

Pentsatzen dugu gure produktua ondo aterako dela, orduan inbertsioak izango ditugula esango genuke. Zifra espezifikoak ez dakigu, baina inbertsore bat baino gehiago izatean eta bakoitzak kantitate "txikia" jartzea gustoko izango genuke.